

EUSKAMPUS FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Euskampus Fundazioa.

IFK

G95658688

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2011ko uztailaren 19an eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen fundazioa [Euskampus Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2011ko urriaren 13ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

9499 Beste leku batzuetan jaso gabeko elkartzeko-jarduerak.

Fundazioaren xedea eta helburua

Euskadiko gizartea, ekonomia eta kultura eraldatzeko prozesuan bultzatzeko asmoarekin sortu da Fundazioa, Euskadi nazioarteko abangoardian kokatzeko jakintzaren gizartean, eta helburu orokor horren barruan honako hauek hartzen dira, besteak beste:

- Nazioartean garrantzitsua izango den prestakuntza-, ikerketa-, transferentzia- eta berrikuntza-polo bat konfiguratzeko laguntzea.
- Nazioarteko dimentsioko campus akademiko bat sendotzea, kalitateko eta jakintzaren gizartean integratutako goi mailako hezkuntza-eredu publiko bat kanpora proiektatzeko.
- Euskadiko hainbat agenteren (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko erakundeak, enpresak, gizarte-agentek eta abar) arteko eta haien eta nazioarteko agenteen arteko lankidetzaren sustatzea eta bideratzea, goi-mailako prestakuntzako, ikerketako, baliozko eta jakintzaren transferentziako alorretan, gizartearen mesedetan eta nazioarteko testuinguru batean.
- Euskadi nazioartean sustatzea zientziaren, teknologiaren, berrikuntzaren, sormenaren eta talentuaren polo gisa, nazioartean erreferentziakoak diren erakundeekin lankidetzaren akordio egonkorrak ezartzen ahaleginduz, pertsonen mugikortasuna sustatuz eta prestakuntza, ikerketa eta berrikuntzarako baterako programak sortuz.
- Munduko edozein tokitatik datorren talentua erakartzea eta leialtzea, talentu hori hartzeko, integratzeko eta jarduten laguntzeko beharrezkoak diren baliabideak haren eskura jarri.

- Zientziaren, teknologiaren, arteen eta giza zientzien azterketarekin, ikerketarekin eta gizarte-sustapenarekin zerikusia duten mota guztietako jarduerak sustatzea, bultzatzea eta hedatzea, bere kabuz edo beste erakunde batzuekin elkarlanean.
- Euskal Herriko Unibertsitatea nazioarteko bikaintasun-campus gisa sendotzen laguntzea, ingurune gainerako erakunde pribatu eta publikoekin harreman estuan eta herritarrekin konprometitua, lurraldearen garapenean eta Euskadiko gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren erronken konponbideak bilatzen parte hartuz.
- Gizartea eta Fundazioan parte hartzen duten erakundeak elkarrengana hurbiltzeko mota guztietako ekimenak sustatzea.
- Euskal kulturaren eta hizkuntzaren gizarte-proiektzioan eta -garapenean parte-hartze aktiboa izatea, Fundazioaren helburuak betez.

Sailkapena kontabilitate nazionalen


Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura

60.000 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

EHU	% 33,33
Donostia International Physics Center fundazioa	% 33,33
Tecnalia Fundazioa	% 33,33



Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontrolako eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. 2012ko ekitaldia ixtean, Patronatuak honako kide hauek zituen:

Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna.	Presidentea. EHU.
Pedro M ^a Etxenike Landiribar jauna	Presidenteordea. DIPC Fundazioa.
Javier Ormazábal Echevarría jauna	Tecnalia Fundazioa.
Miguel Ángel Gutiérrez Ortiz jauna	EHU.
Amaia Maseda García andrea	EHU.
Juan José Unzilla Galán jauna	EHU.
Rogelio Pozo Carro jauna	Tecnalia Fundazioa.
Alberto López Basaguren jauna	DIPC Fundazioa.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	5.208.086 €
Ondare garbia	4.735.247 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	6,91

Sozietatearen helbidea

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Bizkaiko campusa, Sarriena auzoa z./g., 48940 Leioa (Bizkaia).

Webgunea

<http://euskampus.ehu.es>